

"Madame Bovary"  
Gustave Flaubert  
euskaratzailea: Patxi Apalategi  
Ibaizabal, 1993

Eleberri bat idatz daiteke Flauberten hau itzultzeko Patxi Apalategi itzultzaile eta hala ere lagunak jasan behar izan dituen gorabehera buruz. Zinak eta minak, beltzak eta txuriak, kolore guztietakoak, ikusi izan ditu lan hau argitaratu aurretik. Ez jatorrizko testu frantsesari berari dagozkion zailtasunengatik bereziki, jatorrizkoa irakurri ere ez dutenengandik jasotakoak baizik. Baina oztopo guzti horiei aurre egin die itzultzaileak korrikalari bakartiaren gisa, ez du etsi, ez du abiada azkartu, helmugara iritsiko zelako ziurtasunez.

Ez dakit zenbat jendek edo gizakumek irakurriko ote duten liburu hau euskaraz. Ez jakitegatik ere, ez dakit zein den liburu hau edozein erdaratan irakurri dutenen kopurua. Eta hala ere, literaturzale den edonori galdetzen bazaio Flauberten "Madame Bovary"ren balioaz, zalantza askorik gabe erantzungo du erakusmenekoa dela, izugarria, eta ez dagoela beste bat horren parekorik. Baina liburua irakurtzea, antza, beste enborreko ezpala da.

Aitorpena zilegi bazait, esan beharrean aurkitzen naiz gainera, liburu honek betidanik utzi nauela liluratuta eta txora-txoratuta, maiteminduta bezala, izan ere, gure gustokoak direnean, liburuak pertsonak maitatzen diren irrika bereberaz maitatzen baitira, askok eta askok bestelako iritzia duten arren. Leku guztietara joaten gara haiekin, lo ere haiekin egiten dugu, eta behin baino gehiagotan jaikitzen gara ea artean mesanotxean dirauten, guk seinalatutako orrialde izurtuek barnean gordetzen ote duten lehenago irakurritako guztia, gauaren indarrez ez ote diren desagertu.

Denborak aurrera egin ahala (lege den bezala, bestela ez baitzen denbora izango) gero eta gutxiago gustatzen zait Mme. Bovary protagonista, Erromantizismoaren hondartzat daukat. Baina, neurri beretsuan, gero eta atseginagoa dut Mme. Bovary eleberria, Flauberten maisu lana, Patxi Apalategi itzultzaile eta lagunak itzuli duena, hark dakien eta behin baino gehiagotan erakutsi duen moduan. Irakurri besterik ez dago (nire aholkua da) Miguel Delibesen "Kastila Zaharreko Kontu Zaharrak" hura. Eta arnasa sakon hartu ondoren Madame Bovary hau. Ausardiarik falta ez bada, bederenik.